

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Tibetarrak altuerara nola egokitzen diren argiago dago

ORIOI GASCÓN



SCIENCE ALDIZKARIAREN uztailaren 4ko zenbakian tibetarrek altuerarekiko duten egokitzapen mekanismoari buruzko arrasto sendoak eman zituzten. Munduan bi populazio bizi dira 4.000 metrotik gora, tibetarrak eta andetarrak. Azken horien altuerarekiko egokitzapen mekanismoa ezaguna da: euren odolak askoz hemoglobina gehiago ekoizten du gainerako giza-kiona baino; horrela, nahiz eta bizi

diren altueran itsas mailan baino %40 oxigeno gutxiago izan, beraiek oxigeno gehiago garraia dezakete gorputzeko zeluletaraino.

Baina hemoglobina ekoizpen horrek oso ondorio kaltegarriak ditu andetarrentzat. Odola loditu egiten da, eta horrek zaildu egiten du ehunen oxigenazioa. Horregatik, emakume haurdunek ume asko galtzen dituzte, eta jaiotzen direnak oso txikiak dira. Tibetarren hemoglobina kopurua, berriz, normala da; haien kasuan, geneetan dago gakoa, eta batez ere EPAS1 izena duen eta goi mailako kirolean ondo ezaguna den genean. Antza, egungo tibetarrengan EPAS1 genea mutatu egin da, eta oxigeno eskasiara moldarazi ditu gorputzak.

Arren eta emeen gantza, genetikoki desberdinak

SAGUEKIN EGINDAKO PROBETAN, emeen eta arren gantzen genetika desberdina dela ikusi da. Saguek dituzten 40.000 geneetatik 138 gene berdin baino ez dira topatu arren eta emeen gantzetan, eta horrek asko harritu ditu ikerlariak, aurkako zerbait espero zuten-eta, hau da, 138 gene inguru besterik ez izatea desberdinak.

Aurkikuntza horrek arrasto batzuk eman ditzake gizakion gantzari dagokionez. Jakina da gizonezkoek urdaila aldean biltzen dutela gantza, eta emakumezkoek gerrian eta aldaka inguruan. Kontu estetiko baina gehiago da gantzaren biltokia: gizonezkoengan, emakumezkoengan ez bezala, metatutako gantzak diabetesa eta gaixotasun kardiobaskularrak eragiten ditu.



WWW.CANARIAS7.ES

Ozeano batek Marteren herena estali omen zuten

Gero eta datu gehiago ari zaigu iristen Martetik, eta ondorioz gero eta hipotesi gehiago egiten ari dira planeta gorriaz. Azkenetakoa hauxe da: egitura geologikoak aztertuta, badirudi orain dela 3.500 milioi urte inguru ozeanoak Marteko gainazalaren zati handi bat estali zuela.

<http://ttiki.com/14957> (Gaztelaniaz)

Lehenengo bizidunen arrastoak bila

Leeds-eko Unibertsitatean (Erresuma Batua) biziaren jatorriaren arrasto berriak topatu dituzte. Ikerlarien arabera, pirofosfito izeneko konposatua energi iturri garrantzitsua izan zen lehen izaki bizidunentzat.

<http://ttiki.com/14958> (Gaztelaniaz)

Grigori Perelman errusiar matematikariak sariari uko

Orain hilabete batzuk orrialde honetan iragarri genuen Grigori Perelman matematikariak milioi bat dolarreko saria irabazi zuela Poincare-ren aierua ebazteagatik. Orain jakin dugu uko egin diola sariari. Arrazoietako bat da bere ustez beste matematikari batek ere, sariaren irabazle izan behar zuela.

<http://ttiki.com/14959> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16